

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2014ko azaroaren 13an aurkeztuko du

Rineke Dijkstra: *The Krazyhouse*
(Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee), Liverpool, UK

Rineke Dijkstra:
The Krazyhouse (Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee),
Liverpool, UK

- Datak: 2014ko azaroaren 13a – 2015eko martxoaren 1a
- Komisarioa: Álvaro Rodríguez Fominaya
- Film & Video aretoa (103)

Guggenheim Bilbao Museoa Rineke Dijstraren *The Krazyhouse (Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee), Liverpool, UK*, (2009) lana ikusgai izango da 2014ko azaroaren 13tik 2015eko martxoaren 1era arte. Espainian lehenbiziko aldiz erakusgai izango da lan hori, eta Film & Video aretoak, bideoarteari, bideoinstalazioari eta irudia mugimenduan darabilten lanei eskainitakoak, hartzen duen hirugarren instalazioa izango da.

The Krazyhouse kanal askotako bideoinstalazioa da: lau proiektziok osatzen dute. Nerabe batzuk dantzan ageri dira, hondo zuri baten aurrean eta eurek aukeratutako musikaren soinuan. Rineke Dijkstra (Sittard, Herbehereak, 1959) gazte horiek Liverpooleko diskoteka enblematiko batean ezagutu zituen, The Krazyhouse izenekoa, eta klubean bertan inprobisatutako estudio batean grabatu zituen. Hiru laurdeneko planoak eta hurbileko planoak, aurpegieren xehetasunak argi eta garbi jasotzen dituztenak, tartekatzen dira. Bost protagonisten arteko aldeak ez daude hautatutako musikan soilik —popa, heavy metala zein teknoa—, itxura eta mugitzeko era desberdina ere badute.

Lan honetan, artistak gazteen ekintzak zuzendu nahi izan zituen: espazio txiki batean sartu zituen, egin zitzaketen mugimenduen zabaltasuna mugatzeko. Kamera aurrean jarri zituen, atzealde zuri baten aurrean, argi distiratsu batek argizatuta. Hala ere, askatasuna ere eman zien, musikaren bidez adierazteko eta mugitzeko askatasuna, une jakin batean musika horrekin lotura ezartzea lortzen zutenean; horrek nerabeen nortasuna eta subjektibotasuna agerian jarri zituen.

1990eko hamarkadatik argazkigintza eta bideoa jorratu ditu Dijstrak eta artelan-corpus konplexua sortu du. Serieka egiten du sarritan lan, horrek gai bakoitza sakonki ikertzeko aukera ematen baitio; besteak beste, ikuslearen eta irudiaren arteko lotura aztertzen dute haren lanek. Aipatzekoa da erretratuak duen garrantzia; luze eta sakon jardun du erretratu lantzen, eta maiz nerabeak

erretratatu ditu. 1996an, lehen bideoinstalazioa sortu zuen: irudia mugimenduan erabiltzea erakargarri egin zitzaion argazki-proiektu baterako gaueko klubetako testuingurua aztertzen zuen bitartean; gerora, Museoan erakusgai den lanean ikus daitekeen moduan, gai horrexeri berriro heldu zion.

Argazkietan eta bideoetan –argazkigintza ondoren hasi zen bideoa jorratzen–, artistak komuneko estrategiak eta batetik besterako forma eta metodologia aldaketak erabiltzen ditu; hala bi baliabideen arteko aldea txikitzen du. Nolanahi ere, Dijkstraren bideoetan, argazkigintzaren sintaxia eremu arkitektonikoak, denborak eta soinuak eteten dute; *The Crazyhouse* instalazio ingurukaria dugu horren adibide.

The Crazyhouse 2010ean eman zen lehen aldiz Tate Liverpooletan eta ordutik nazioarteko kritikariek laudatu dute eta leku askotan erakutsi da, besteak beste, Parisen, New Yorken, Frankfurtan, San Franciscan eta Washingtonen.

Artistaren biografia

Rineke Dijkstra Sittard-en, Herbeheretan, jaio zen 1959an. Argazkigintza ikasi zuen Amsterdamen eta 1980ko hamarkadaren amaieran klub eta diskoteketan pertsonak erretratatzeko hasi zen. Urte batzuen buruan, Herbeheretako egunkari batek argazki-erreportaje bat eskatu zion, uda gai; Dijkstrak nerabeak, bainujantzian, hondartzan erretratatu zituen. Irudi horiek *Hondartzak (Beaches)*, artistaren lan ezagunenetako bat, sailaren ernamuina izan ziren. Ordutik aurrera haren artegintzaren funtsezko gai dira haien bizitzako une erabakigarria baten dauden pertsonak: 1994an, amak erretratatu zituen haurra izan eta gutxira, bai eta zezenketariak, hondarrera irten baino lehen. *The Buzz Club, Liverpool, UK/Mysteryworld, Zaandam, NL* lanean bideoaren teknikan murgildu zen, eta, 1996 eta 1997 artean nerabeak grabatu zituen festan. *Parkeko erretratuak (Park Portraits, 2003–06)* sailean, aldiz, haurrak eta nerabeak erretratu zituen parketan, eta une horretantxe egiten ari zirena izoztuta gelditu zen; parke ezberdinetako txoko ikusgarriak ziren, hala nola, Amsterdamgo Vondelpark, Brooklyngo Prospect Park, Madrilgo Retiro parkea eta Xiamengo lorategi botanikokoak. Lehen bakarkako erakusketa 1984an egin zuen, Amsterdamgo Moor galerian, eta ordutik aurrera nazioarteko galeria eta museo ugarian egin ditu erakusketak, bai eta azokatan ere, esaterako Veneziako eta São Pauloko bienaletan, eta Turingo, Moskuko eta New Yorkeko argazki azoketan. Irabazitako sarien artean daude Kodak saria (1987), Art Encouragement Award, (1993),

Werner Mantz Award (1994), Citibank Private Bank Photography Prize (1998) eta Macallan Royal Photography Prize (2012).

Film & Video (103. aretoa)

Film & Video aretoa martxoaren 6an ireki zen; orduan erakutsi zen Christian Marclay-ren *Erlojua* (*The Clock*) lana. Aretoa bideoarte, bideoinstalazioak eta irudia mugimenduan darabilten lanak erakusgai ipintzeko sortu zen; lanok Guggenheim Museoen bildumetakoak zein nazioarteko bestelako funtsetakoak izango dira. Uda baino lehen, Ragnar Kjartansson-en *Bisitariak* (*The Visitors*) lana jarri zen ikusgai.

Azaleko irudia:

Rineke Dijkstra

The Crazyhouse, (Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee), Liverpool, UK, 2009

Lau kanaleko bideo-instalazioa, koloretan, soinuduna, 32 min., edizioa: 6 aletik 3.

Solomon R. Guggenheim Museum, New York

Zuzendariaren Nazioarteko Batzordearen funtsekin eskuratua; Parisko Fondation Louis Vuitton-ekin partekatutako jabetza, 2013.8

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketing eta Komunikazio Arloa

Tel: +34 94 4359008

media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es

Prentsa irudiak:

Rineke Dijkstra; The Krazyhouse (Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee), Liverpool, UK

Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.es

1. Rineke Dijkstra

The Krazyhouse, (Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee), Liverpool, UK, 2009

Lau kanaleko bideo-instalazioa, koloretan, soinuduna, 32 min

Bideo-fotograma

Solomon R. Guggenheim Museum, New York. Zuzendariaren

Nazioarteko Batzordearen funtsekin eskuratua; Parisko Fondation

Louis Vuitton-ekin partekatutako jabetza, 2014.

© baimendutako erreprodukzioak, VEGAP, Bilbo, 2014



2. Rineke Dijkstra

The Krazyhouse, (Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee), Liverpool, UK, 2009

Lau kanaleko bideo-instalazioa, koloretan, soinuduna, 32 min

Bideo-fotograma

Solomon R. Guggenheim Museum, New York. Zuzendariaren

Nazioarteko Batzordearen funtsekin eskuratua; Parisko Fondation

Louis Vuitton-ekin partekatutako jabetza, 2014.

© baimendutako erreprodukzioak, VEGAP, Bilbo, 2014



3. Rineke Dijkstra

The Crazyhouse, (Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee), Liverpool, UK, 2009

Lau kanaleko bideo-instalazioa, koloretan, soinuduna, 32 min

Bideo-fotograma

Solomon R. Guggenheim Museum, New York. Zuzendariaren Nazioarteko Batzordearen funtsekin eskuratua; Parisko Fondation Louis Vuitton-ekin partekatutako jabetza, 2014.

© baimendutako erreprodukzioak, VEGAP, Bilbo, 2014



4. Rineke Dijkstra

The Crazyhouse, (Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee), Liverpool, UK, 2009

Lau kanaleko bideo-instalazioa, koloretan, soinuduna, 32 min

Bideo-fotograma

Solomon R. Guggenheim Museum, New York. Zuzendariaren Nazioarteko Batzordearen funtsekin eskuratua; Parisko Fondation Louis Vuitton-ekin partekatutako jabetza, 2014.

© baimendutako erreprodukzioak, VEGAP, Bilbo, 2014



5. Rineke Dijkstra

The Crazyhouse, (Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee), Liverpool, UK, 2009

Lau kanaleko bideo-instalazioa, koloretan, soinuduna, 32 min

Bideo-fotograma

Solomon R. Guggenheim Museum, New York. Zuzendariaren Nazioarteko Batzordearen funtsekin eskuratua; Parisko Fondation Louis Vuitton-ekin partekatutako jabetza, 2014.

© baimendutako erreprodukzioak, VEGAP, Bilbo, 2014

